

barre-karkaraz kulunkatu, ta osto barri gaiñean dantzatu, ni nintzakenik jakingo ete zeunke, ama ?" Zuk dei egingo zeuskit: "Ume, nun zagoz ?" Eta nik barre egingo neuke neure kautan, eta geldi-geldi egon. Txit astiro zabalduko neukez neure orriak, eta zu ikusiko zindukedaz lanean.

"Bustialdia artu ondoren, ule ezkotua zeure sorbalda gaiñean zabal, txanpakaren gerizpean zear otoi egin oi dozun oxin txikiruntz joango zinakezanean, somatuko izencLuke, ama, lorearen usain gozoa, baiña nik jariona zanik ez zeunke jakingo. Bazkal ostean, zu leioan jarrita Ramayana irakurten zengokezanean, eta nire zugatzaren itzala ulean ta altzoan zuri emon, nik neure itzaltxo pitiña zure liburuaren orrian jaurtiko neuke, zu irakurten zengokezan lekuan atan be. Baiña, zuk igarriko zeuskio zure semearen itzaltxoa danik ? Illuntzean, argontzia ixeturik, okullura zinakezanean, ni beingoan barriz jausiko nintzake lurrera ta barrero zure aur izan, eta ipuin bat esateko eskatuko neuskizu".

"Nun egon az i, gaizto ori ?" "Ez dautzut esango, ama", alkarri esango geunskio.

i6

MAITAGARRIEN LURRALDEA

Iñok ba'leki nun dagoan nire erregearen jauregia, aidean urtuko litzake jauregi ori. Zidar zuri dira aren ormak, urre zuri aren gainkia. Nire

erregiña, zazpi barrube daukazan egoitzean bizi da ; ta zazpi aginterriak balio eben aiña ordaindu bear izan zan arek daroan bitxia. Baiña itxi, arren, ama, ta ixil-ixilik esango dautzut nun dagoan nire erregearen jauregia. Begira : an, albaaka ontzia nun ? Antxe, etxe-gaiñeko bazter aretan dago.

Errege-alaba lo datza, sekula iñok ez ibilli ez ikusi bako zazpi itxasoen azken-ondartzan lilluratu. Ezin dau iñok ludian, neronek ezik, idoro. Entzun: apainki dotorez estalita daukaz besoak, eta txirlarri-tantak belarrietan. Aren ule-mataza joria beeraiño eltzen yatzu. Nik neure makiltxo miresgarriz ikutzean, orduantxe itxartuko da ; eta erribarre egitean, bitxiak jausiko yakoz ezpanetatik. Baiña itxi, arren, ama, ta ixilka esango dautzut : errege-alaba, an dago, albaaka ontzia aurkitzen dan etxe-gaiñeko bazter aretan.

Bustialdirako ordua dala-ta, ibaira zoazanean, ama, zatoz ona gora, etxe gaiñera. Ni jarrita nagoke, hegira, an orma bien itzalak alkartzen diran lekutxoan. Katemeari izten dautsat bakar-bakarrrik an egoten, neugaz batera, katemeak bai daki nun bizi dan ipuifietako bizargillea. Baiña itxi egidazu, arren, ama, eta esango dautzut nun bizi dan ipuifietako bizargillea : an bizi da, albaaka ontzia dagoan etxe-gaiñeko bazter aretan.

ERKATUAREN ABERRIA

Ama, begira, zein illun biurtu dan zerua ! Eguneko ze ordu ete ? Jolasez gogait eginda nago, bai,